



Gehiengo osoa Kongresu anitzean

Carlos Sevilla Peris

Diagonal aldizkariko kazetaria

HILABETETAKO, urtetako oposizioaren ostean, Zapateroren Gobernuaren desgastea literalki itzaroten, Alderdi Popularrak inkestarik baikorrenak berretsi ditu. Historiako emaitzarik onena (186 eserleku) eta PSOE-ren txarrena (110). 2008ko bozekiko, PSOEek 4,3 milioi bozka galdu ditu eta kontserbadoreek 550.000 inguru irabazi dituzte. Mariano Rajoyren proposamenaren anbiguetateak eta hilabete gutxi batzuk lehenagora arte parte hartzen zuen gobernutik aldentzeko Alfredo Pérez Rubalcabak egindako saiakerak, presidentetzarako lehian egon den maila erakusten digute.

Baina hurrengo parlamentua oso desberdina izango da aurrekoarekiko. Krisi ekonomikoari aurre egiteko PSOEren gobernuaren errezetak botoak beste alderdi batzuetara sakanatu ditu eta Izquierda Unidak atera du etekin gehien, 2 diputatutik 11ra igaroz. Ezkerreko beste talde bat, Amaiur, 7 eserlekurekin estreinatuko da, EAJk baino bi gehiago. 333.000 botorekin, koalizio abertzaleak maiatzeko autonomikoetan jasotakoak baino 20.000 boto gehiago lortu ditu, eta HBk 1986an izandakoak baino 100.000 gehiago –ezker abertzaleak Kongresuan lortutako emaitzarik onenak ziren, 5 eserlekurekin–. Foro Ciudadano eta Compromís-Equo koalizio valentziarra gehitzen baditugu, 1977tik izan den hemiziklorik anitzena dugu, 13 alderdik ordezkatu.

Espainiako eta Europako ekonomiaren egoera larriak –murrizketa neurriak tarteko– kokatu du igandeko hauteskundeetan testuingurua. Botere ekonomikoaren aurrean politikak duen benetako boterea eztabaidarako gaia da eta boto batek, ordezkari politiko batek duen ekintzarako gaitasuna zalantzan dago, inoiz baino gehiago. Krisiak eta gehiengo osoa duen PPrengandik espero ditza-kegun soluzioek legegintzaldi konplexua aurreikusten dute. Eta Rubalcabak dagoeneko PSOE-ren ohiko batzarrera deitu du “lehenbailehen”.



Tsunami urdina espainiarra besterik ez zen

Salvador Cot

El Temps aldizkariko zuzendaria

CIU EZ DA KATALUNIA, baina atzoko hauteskundeetan ondoren, bera da Kataluniaren antz handiena duena. Sekula, ezta Jordi Pujolen ondoz ondoko gehiengo absolutuen garaian ere, ez zuen CiUk halako ordezkari-ritza maila lortu. Artur Mas Generalitateko presidentea da, Xabier Trias Bartzelonako alkatea da, eta Josep Antoni Duran Lleida estatuko hauteskundeetan buruzagi garailea da. Ezbairik gabe, emaitza historikoak dira.

Baina, euforia pasata –Duraneke hitz egin eta gero, zale konbergenteek “independentzia” oihukatzeraino–, errealitate gordina gelditzen da. Tsunami urdina benetan gertatu da, eta Espainia espainiarra bere aukera sendoenaren atzean, ezker historiko gutxien duen aukeraren atzean blindatzen saiatu da. Eta horixe da, ustez behintzat, Katalunia eta Espainiaren arteko harreman sistema berria proposatu behar duen Espainia. Politikan ez da ezinezkorik, baina elkar ulertze hori oso hurbil dago ezinezkotik.

Arrastoak laster izango ditugu. Artur Masek hitzarmen fiskal bidezkoagoa lortzen ez badu, bere agintaldia itxitako ebakuntza gelen eta irakasle haserretuen artean makalduko da. Eta denbora gutxi du.

Baina kontua da Kataluniakoa historikoa izan dela, eta, berdin, Valentziakoa. Errepublikaz geroztik lehenengoz, politikoki valentziarra den diputatu batek eserlekua izango du Kongresuan. Joan Baldovíurrundik datorren baina berria den herrialdearekin bat egiten duen berrikuntza da.



Kilikatu Kultura, klikatu euskaraz!



www.gernika-lumo-euskaraz.com

